

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Eguberrietako plagio arrakastatsua



Mendeetan margolariak pintatu dituzten eta guk urtero ospatzen ditugun Eguberriak ez dira oso originalak; beste erlijio eta kulturetako tradizioak hartu eta oso modu eraginkorrean moldatu zituzten.

BETLEEM, DUELA 2.010 URTE. Nazareteko Jesus estalpe batean jaio zen. Edo, behintzat, horixe da urtero munduan 2.000 milioi pertsonak ospatzen dutena. Mateok eta Lukasek 70-90 urte geroago idatzitako ebanjelioen arabera, ama birjina zuen, jaioberritan hil egin nahi izan zuten eta urrunetik etorritako beilariek gurtu zuten.

Eguberrietako istorioak Nazareteko Jesusen jatorria handiagotzea du helburu. Horretarako, ama birjinetik jaio izatea elementu eraginkorra izan zen, baina ez berria; Alexander Handia, Augusto eta Platon ere horrela jaio omen ziren. Eta zergatik aukeratu zuten Betleem herrirka? Mikeasen profeziak horixe zioelako, eta hark aurreikusitakoarekin bat etortzeak sinesgarritasuna erantsiko ziolako. Eguberria abenduaren 25ean ospatzeko ohitura geroago etorri zen, Julio I.a Aita Santuak 230. urtean erabaki baitzuen. Horrenbestez, negu hasierako ospakizun paganoa berenganatu zuten kristauak.

Handik hiru egunera Herodes errege ezgaiak, Jesus aurkitu ezinik, haur txiki guztiak hiltzeko agindua eman omen zuen. Baina horren inolako arrasto historikorik ez dago. Eta bai, berriro ere, aurrekariak: Moises

jaio zenean faraoiak ere horixe egin omen zuen. Eta Jesus Moises berri-tzat aurkeztu nahi zuten. Gainera, Herodes K.a. 4. urtean hil zen.

Errege magoen istorioa Mateok bakarrik jaso zuen eta, hala, Jesusen lehen jarraitzaileen artean atzerritarrak izanda, Jesusen irudiak eremu judutarra gaingitu zuen. IV. mendean Leon IV.a Aita Santuak erregeetako bat beltza zela erabaki zuenean, nazioarteko kutsu are handiagoa eman zitzaion erregeen bisitaldiari. Jaioberriari opariak ematea, aldiz, tradizio judutarretik jaso zuten, erdaintzearen ondoren haurrei opariak egiteko ohitura baitzeukaten.

Bestalde, magoak gidatu zituen izarrari azalpen astronomikoak ematen saiatu dira aspaldian. Keplerrek Jupiterrek eta Saturnok bat egin zutela diote. Eta azken urteetan, izar hura Halley kometa zela esan izan da sarri. Baina hain urrutira ez da joan behar izarraren zergatiaren bila. Pertsonaia garrantzitsuen jaiotzari edo heriotzari fenomeno astronomiko bat erans-tea ohikoa zen garai hartan; Julio Zesarren heriotza, esaterako, eklipse batekin lotu zuten. Zertarako asmatu istorio berriak, aurrez eraginkorrak ziren beste batzuk bildu eta moldatzeko aukera izanda?

Arrastoak Hogei urte zibilizazioekin jokatzen

CIVILIZATION V bideojokoa, izen bereko sagarren bosgarren bertsioa, kaleratu berri dute. Jokoa duela hogei urte sortu zen eta dagoeneko zortzi milioi ale saldu ditu mundu osoan.

Bideojoko honetan, jokalaria historiako hamazortzi zibilizazioen buru izan daiteke, hala nola George Washington, Napoleon edo Txinako enperatriz Wu Zetian. Erabiltzaileak zibilizazioa historiaurrean har dezake eta aro espazialeraino eramane. Tartean munduko lehen potentzia bihurtzen saiatu beharko du eta, diplomaziak emaitzak eman ez baditu, gudarosteak izango ditu bizilagunei erasotzeko.

Bosgarren edizio honetan etsaien adimen artifiziala eta grafikoak hobetu dituzte. Bitartekoen kudeaketa eta guduak, aldiz, arindu egin dituzte.



Civilization V bideojokoa erabiltzaileak historiako hamazortzi zibilizazio berregiteko aukera du.